# NIRE IZEBAK PLASTIKOZKO POLTSA BELTZETAN SARTZEN IKUSI DITUT



# PALESTINAKO POESIA GARAIKIDEAREN BILDUMA BAT

4/4 alea.

## 10 POETA PALESTINARREN 20 POEMA LUR SANTUTIK –VIA BELGIKA– ZUZENEAN!

G.ENSSLIN & A.BAADER

<ezin da edozer defendatu baina bide guztiak dira zilegi>
UMPS [ap]: Arbeitsrat für Kunst
<Вся власть самиздатам!> UMPS [ap]: pamphletocoвéта

G.ENSSLIN & A.BAADER
BILBO (JORDANIA)

>derSchmähschriftFürDenKulturwiderstand<


[web::zuzeu.com [blog::andreasetagudrun.wordpress.com
[twitter::@andreas_gudrun [e-posta::andreasetagudrun@gmail.com


[zureAuzokoHarategian [samizdatElebiduna [bilingualсамиздат
[2012ko maiatza, Gaza (Walhalla- Boliwariańska Republika Walhalli)
Darwix2000 + Xalax2008 + Gudrun Ensslin &Andreas Baader

*Le poème palestinien contemporain*. Hautua eta aurkezpena **Ghasan Zaktan**. Frantseserako itzulpena **Antonie Jockey**. Hitzaurrea **Éric Brogniet.**



**CCCP-CC-BY-SA**
Aitortu-Partekatu-Eraldatu: Libreki hedatu lan hau.
Etekin ekonomikoa atera dezakezu baldin eta horrekin
zure eguneroko sufrikarioa arintzen baduzu edo Bilboko Burtsaren aurkako eraso (baketsua-hiritar-bio-politikokiZuzena) finantzatu behar baduzu. Bestelako erabilerak erabat debekatuak daude. Bereziki errebeldia pose bat dela uste edo praktikatzen dutenei.

## تِعالَ إلى الظّل

تعالَ إلى الظل لأحكي لكَ حكاية المسمار العالق في يدِ المصلوبِ،
ومرودَ الكحلِ الذي يذكّرُ بعيونِ القتلة. تعالَ لأريكَ كيفَ تصيرُ
سجنَ نفسكَ وسجّانها في ذاتِ الوقتِ. كيفَ توهمكَ الصحُفُ والنساءُ
الجميلات بالخلودِ. لأشهدكَ على قيلولةِ الأبدِ في شقوق الخرابِ
المتوّج بفتنةِ الديجتال. لترى أنبياءَ الدقيقة" التسعينَ"
في بُروجهم المشيّدة.
تعالَ لترى كيفَ يتراكمُ الغبارُ
على أحذية الآلهة.

### نجوان درويش

**باص الكوابيس الذاهب إلى صبرا وشاتيلا**

رأيتهم يضعون خالاتي في أكياس بلاستيك سوداء
وفي زوايا الأكياس تتجمع دماؤهن الحارة
(لكن أنا ليس لي خالات)
عرفت أنهم قد قتلوا نتاشا -ابنتي التي في الثالثة-
(لكن أنا ليس لي ابنة)
قيل لي أنهم اغتصبوا زوجتي قبل أن يجرّوا جسمها على الدرج
ويتركوه في الشارع (لكن أنا لم أتزوج)
لا شك هذه نظارتي التي تحطمت تحت البسطار
(لكن أنا لا ألبس نظارة!)

..............................
..............................

كنتُ نائماً في بيت والديّ أحلم بالسفر إلى بيتها، وحين استيقظت:
رأيت إخوتي
يتدلون
من سقف كنيسة القيامة.
كان الرب يقول من الشفقة: هذا ألمي أنا.
وكنت أستجمع كبرياء المُعلّقين وأقول: لا بل هذا ألمنا!

..............................
..............................

الألم يضيء ويصير أحبّ إليّ من كوابيسي.

..............................
..............................

لن أهرب للشمال
أيها الربّ
لا تحسبني من الذين يبحثون عن ملاذ.

- سنكمل لاحقاً هذا الحساب -

عليّ أن أمضي الآن إلى النوم:
لا أريد أن أتأخر عن باص الكوابيس، الذاهب إلى صبرا وشا

ITZULPENA
ERE MAILUA DA!

**Baxir Xalax** (1978 Galilea, Palestina)

Zatoz itzalera konta diezazudan gurutziltzatuaren eskuko hiltzearen
istorioa, hiltzaileen begiak oroitarazten dituen koholezko espatula.
Zatoz erakuts diezazudan nola bihurtzen zaren zure zeure etxea eta
bere presozaina, eta nola egunkariek eta emakume ederrek ematen
dizuten eternitatearen ilusioa. Zatoz izan zaitezen eternitatearen
siestaren lekuko digitalaren xarmaren peko hondakinen pitzaduretan.
Ikusteko telebistako albistegietako profetak beren dorre eraikietan.
Zatoz hautsa nola metatzen den ikustera jainkoaren zolen gainean.

****

**Nahwan Darwix** (1978 Jerusalem, Palestina)
*Azken atean ari zen deika,* 2000.

AMESGAIZTOEN AUTOBUSA

Nire izebak plastikozko poltsa beltzetan sartzen ikusi ditut
poltsen izkinetan odol beroa biltzen zen
(baina ez dauka izebarik)
banekien Nataxa hila zutela, nire hiru urteko alaba
(baina ez daukat alabarik)
esan didate nire andrea bortxatu zutela bere gorputza
[eskaileretatik behera bota eta karrikan utzi aurretik
(baina ez nago ezkonduta)
ziur naiz nireak direla haien boten pean hautsi dituztenak
(baina ez daramat betaurrekorik)
..................................................
..................................................
Nire gurasoen etxean lo egiten nuen eta maitearen etxearekin
egiten nuen amets. Jaikitzean
nire nebak ikusi ditut
urkatuta
Berpizkundearen elizako teilatutik.
Gupidagatik, Jainkoak esaten zuen: nire neure mina da.
Argitzailearen harrokeria jasotzen nuen eta nioen: geurea da bereziki!
..................................................
..................................................
Minak argia ematen du eta nire amesgaiztoak baino gertukoagoa egiten zait.
..................................................
..................................................
Ez dut iparraldera alde egingo
o Jainko
ez nazazu konta babesleku bila dabiltzanak zenbatzean.

–beranduago jarraituko dugu kontaketa horiekin–

Orain lotara joan behar naiz:
ez dut berandu heldu nahi Sabra eta Xatilara doan amesgaiztoen autobusera...

## مريم

أمي مغرمة هذه الأيام بالقراءة عن يسوع، أرى كتباً مكومة قرب
سريرها [تستعيرها غالباً من مكتبتي]: روايات وسبل ومذاهب
ومؤلفين يتضاربون بالأيدي. ويحدث أن أمر أحياناً من هناك،
فتناديني لكي أحجز بينهم.
[ قبل قليل أسعفتُ مؤرخاً يُدعى كمال صليبي وقد شُجّ بحجر
كاثوليكي في جبهته!].ويا لها من قارئة جادة في بحثها عن يسوع،
هذه المرأة التي خيّبتُ ظنّها دائماً: فلم استشهد في الانتفاضة الأولى
ولا الثانية ولا الثالثة
كما أني- وهذا بيننا - لن أستشهد في أية انتفاضة قادمة
ولن أقتل في انفجار لقلقٍ ملغوم!

.............................
.............................

إنها تقرأ وخيالها الأرثوذكسي يصلبني مع كل صفحة
وأنا لا أفعلُ شيئاً سوى تزويد خيالها بكتب أخرى ومسامير!

## أكشن

"أكشن"- هكذا يبدأ يومي ..
تزعجني الكاميرات منصوبة في كل مكان
"الكاميرا مان" يلحقني حتّى إلى الحمام
ودائماً أسمعها: "أكشن."

الرب مخرج سينمائي كبير
-اخترع الواقع-
ولا حاجة بعده لمخرجين صغار
يحلمون بإنجاز فيلم روائي طويل.

## ريش ادمي

أقفاص دجاج لا يعرف أحد كيف تحولت إلى فندق
وكيف وجدتُ نفسي هناك أصارع أقفاصاً وأبحث عن الذين أدخلهم
المطار إلى شدقه الواسع وابتلعهم
أو لعله ابتلعني أنا لأصارعَ أقفاص دجاج على هيئة سقوف وأسرّة
وغُرف.
أقفاص مهجورة نعثر في بعضها على ريش آدمي وبقايا ملابس
أقفاص دجاج لا يعرف أحد كيف تحوّلت إلى معسكرات عمل
وقطارات لا تتوقف.. لا يعرفُ أحدٌ كيف تحوّلت إلى مستوطَنات.
..............................
..............................
أقفاص دجاج لم نجد فيها أثراً للدجاج ..
سوى ريشنا!

ITZULPENA
ERE MAILUA DA!

## MARIA

Azken garaiotan, nire ama Jesusen irakurketengatik pasioz betea dago.
Bere ohearen aldamenean pilatu ditu liburuak (nire liburutegitik hartzen
ditu sarri): eleberriak, eskuliburuak, aitortza liburuak eta elkarri kalapita
egiten dioten autoreenak. Batzuetan bere gela ondotik igarotzen naiz,
orduan haien ondoan eser nadin diost. (Duela gutxi Kamal Salibi[1] historiagilea
lagundu nuen harri katoliko batek bere kopeta joa zuelako!).
Jesusen bilaketan serioa denez, beti huts egin izan diot andre horri: ez nintzen
martiri izan lehenengo intifadan, ezta bigarrenean, ezta hirugarrenean
gure artean, ez naiz behin ere izango etorkizuneko intifada bateko martiri
eta ez naiz hilko zikoina-bonba baten leherketan!
.................................................
.................................................
Andreak irakurtzen du eta bere irudimen ortodoxoan orrialdero gurutziltzatzen nau
eta nik ez dut ezer ere egiten liburuak eta iltzeak eramateaz gain!

## EKIN

«Ekin» - hala hasten da nire eguna
edonon kokatutako kamerek molestatzen naute
kameralaria segika dut komunean ere
eta beti entzuten dut: «ekin».

Jainkoa zinema zuzendari handia da
–errealitatea sortu du–
beraren ostean, ez dago eleberri moldeko film luzeak
egin nahi dituzten zinema zuzendari txikien inolako beharrik.

## GIZA LUMAK

Ez du inork ulertzen nola bihurtu diren oilo kaiolak hotel
ezta nola hasi naizen kaiolen aurka borrokatzen eta
[aireportuak bere aho handian sartu eta irentsi dituenen bila
agian nik irentsi ditut teilatu, ohe eta gela itxurako
[oilo kaiolen aurka borrokatzeko.
Kaiola desertuak non giza lumak eta jantzien arrastoak topa ditzakegun
inork ez du ulertzen oilo kaiolak nola bihurtu ote diren lan eremu
[eta inoiz ere gelditzen ez diren trenak... nola bihurtu dira kolonia.
.................................................
.................................................
Ez duzu oilo bakar baten traza topatu oilo kaioletan,
gure lumak topatu dituzu.

*1.- (F.i.o.)Konfesio ortodoxoa duen historiagile libanoarra.*